

ZERBITZUAK

Udala eta familiak, UDA 2016 programa lantzen

Apirilaren 21ean, 18:00etan, UDA 2016ko Zaintza zerbitzuan eta Udako Hargunea zerbitzuan interesatuta dagozan gurasoentzako batzarra egongo da Ludotekan.

Martianaren 17an, UDA 2016 zerbitzuko umeen gurasoak batzarra egin zuten, programaren inguruan honeen behar-erizanak, zalantzak eta iradokizunak jasotzeko. Zamudioko Udalak, izandako parte hartzea eskertzen dau eta, honenbestez, herrian hain sendotuta dagoan jardura hau hobetzen jarraitzeko helburuaz, beste deialdi bat luzatu dau, apirilaren 21erako.

Topagunean hainbat gai jorratuko dira:

- **UDAKO HAURGUNEA** zerbitzua (lehengo UMEZAINZTA): txandak, ordutegiak eta prezioak. 3 urtetik 5 urtera arteko umei zuzenduta. Sartzeko ordutegia 08:00etatik 09:30era artekoa izango da eta urtetzekoa, barriz, 13:30etik 14:30era bitartekoa.

- **ZAINZTA edo KUSTODIA** zerbitzua: 5 urtetik 12 urtera arteko umei zuzenduta, garagarrian eskainiko leteke. UDARA sartu aurreko eta urten osteko zerbitzua. Astelehenetik barikuetara 08:00etatik 10:00etara eta astelehenetan, eguaztenean eta barikuetan 13:30etik 15:30era izango da.

Todo preparado para el viaje a Benidorm



Un total de 166 personas empadronadas en Zamudio se han inscrito este año para el viaje anual a Benidorm, que se desarrollará del 16 al 30 de abril con estancia en el Hotel Marina (de cuatro estrellas), en régimen de pensión completa. La experiencia incluirá actividades como

una salida a Valencia-Abufera y una salida nocturna al "Benidorm Palace", además de asistencia de guía en el hotel y en el autobús (de lujo y con asientos reclinables, aire acondicionado, vídeo, WC, etc.). La salida del viaje tendrá lugar el 16 de abril a las 8:00 desde la plaza Za-

marripa (junto al taller de Seve) y el regreso está fijado para el 30 de abril por la tarde. El viaje a Benidorm está restringido a personas jubiladas o pensionistas (así como su pareja o cónyuge) y para participar en él tiene preferencia la ciudadanía con padrón en Zamudio.

HEZKUNTZA

Lan-mundua, parajetik

Txorierriko Batxilergoko ikasleek, EGZ-en eskutik, bertatik bertara ezagutu dabe esperientzia enpresetan berbaldiak eta goiz bateko egotaldiak eginez



Aukeratu ahal izateko, zuzenean bizi behar da lehenengo. Filosofia horregaz eta Txorierriko Mankomunitateak bultzaturik, eskualdeko Batxilergoko 120 ikasle enpresen errealitate hurreratu ditu 'Conocer para elegir-Ezagutu aukeratzeko' programeak, era horretan aukerea emonez lanean dagozan profesionalen esperientziak ezagutzeko eta egun bat ereduazko enpresetan pasatzeko. Gazteek parajetik ezagutu ahal izan eben ikasketak amaitzean egin gura daben jardurea, unibertsitatean hurrengo ikasturteak jardura horretara orientatzeko. ITP moduko konpainia handiak, UPV/EHU moduko erakunde publikoak eta mikropymeak inplikatu dira Txorierriko Mankomunitateko Gazteria Zerbitzuaren programa

baten, gazteei euren lanbide-etorkizunari buruzko orientazioa emoteko. Programearen barruan, lanean dagozan hainbat profesional joan dira Derio BHLra eta Politeknika Txorierriko Ikastegira urrian eta martxoan, eta berbaldiak emon ditue, ikasleek jakin daie zelan aukeratu ondo goimailako hezkuntza eta zelan aurpegi emon enplegua topatzeko erronkei. Programearen azkenengo fasean, 63 ikasle eroan zituen, martxoaren 14tik 18ra bitartean, euren aukeratzeko profesionalen eguneroko lana bertatik bertara ezagutzera. Goiza pasatu eben hainbat enpresatan: IMQ, Ertzaintza, Gaiker fundazioa, Histocell, EITB eta Lantegi Batuak. Holan, eguneroko lana ezagutu ahal izan eben osasun, segurtasun

eta ingurumen- eta itsas biologiako arloetan edo laborategi kimiko baten. Ekimen honetan, taldekako bisitak egin dira Ormazabal eta Euskotren moduko enpresetara, eta lanbide-orientazioa saio bat egin zuten ikasleak eta euren familiak, eta saio horretan Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako eta Politeknika Txorierriko Ikastegiko hizlariak egon ziran; saioa BTEK Teknologiaren Interpretazio Zentroan egin zuten. Bertan aitatu zuten zientzia eta teknologia dirala Txorierriko eskualdean lanbide-aukerak sortzen dituen sektoreak, eta Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea kokatuta dagoen eskualde hau dala Estatu osoan langabezia-tasa txikiena daukietako bat, % 10etik beherakoa.